Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2620

AGINDUA, 2010eko martxoaren 24koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Arrasateko Mondragón Fundazioaren –lehen MCC Fundazioa– Estatutuen hainbat aldaketa eta aldaketa horien ondoriozko testu bategina onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzen duena.

Arrasateko Mondragón Fundazioak –lehen MCC Fundazioa– bere eraketa-estatutuen hainbat aldaketa onartu eta inskribatzeko eskabidea egin du eta horretarako espedientea ikusi da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2010eko otsailaren 18an izan du sarrera Fundazioko Patronatuko idazkari den Zorione Arregui Elcorobarrutiak izenpetutako eskabideak. Patronatuak 1997-10-07an, 2003-06-03an, 2006-02-07an eta 2008-07-08an erabakitako estatutu fundatzaileen hainbat aldaketa inskribatzeko egin da eskabidea.

Eskritura publikoaren bi kopia baimendu erantsi dira, Patronatuaren aipatu bileretako ziurtagiriekin batera.

Mondragón Fundazioaren –lehen Fundación MCC– izenean eta ordez Zorione Arregui Elcorobarrutiak emandako eskritura da, Antonio Román de la Cuesta Galdiz Arrasateko notarioak 2010eko urtarrilaren 28an baimendutakoa, 63 protokolo-zenbakia. Horren arabera, notario-tituluari erantsitako egiaztagiria publiko egiten da. Egiaztagiri hori, Arrasaten egin zuen Patronatuko idazkari Zorione Arregui Elcorobarrutiak, José María Aldecoa Sagastasoloa lehendakariaren oniritziarekin 2010eko urtarrilaren 20an, eta bertan Fundazioaren Estatutuei 1997an, 2003an, 2006an eta 2008an egindako aldaketak jasota daude eta dagozkien estatutu-aldaketen txostenak eransita, baita aurrekontuetan eta antolaketan duten eragina ere. Aipatu urteetan egindako aldaketa guztien ondorioz sortutako testu bategina laugarren eranskinean dago. Halaber, hartu den deitura berriari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko arduradunaren egiaztagiria erantsi da, deitura bera ez izateari buruzkoa.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2620

ORDEN de 24 de marzo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueban e inscriben en el registro de fundaciones del País Vasco diversas modificaciones de los estatutos y el texto refundido de los mismos de la Fundación Mondragón (anteriormente denominada Fundación MCC), de Mondragón (Gipuzkoa).

Visto el expediente que la Fundación Mondragón (antes denominada Fundación MCC), de Mondragón, Gipuzkoa, presenta de aprobación e inscripción de diversas modificaciones de los Estatutos Fundacionales, atendiendo a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 18 de febrero de 2010 tiene entrada solicitud firmada por Dña. Zorione Arregui Elcorobarrutia, en su calidad de Secretario del Patronato de la Fundación, de inscripción de diversas modificaciones de los Estatutos Fundacionales, acordadas por su Patronato el 07-10-1997, 03-06-2003, 07-02-2006 y 08-07-2008.

Se adjuntan dos copias autorizadas de la Escritura Pública que incorpora sendos certificados correspondientes a las reuniones del Patronato mencionadas.

La escritura es otorgada por Dña. Zorione Arregui Elcorobarrutia, en nombre y representación de la Fundación Mondragón (antes denominada Fundación MCC), y autorizada por el Notario de Mondragón, D. Antonio Román de la Cuesta Galdiz el 28 de enero de 2010, bajo su número de protocolo 63. En su virtud se eleva a público el certificado que incorpora el título notarial, expedido en Mondragón, el 20 de enero de 2010, por Dña. Zorione Arregui Elcorobarrutia, en su calidad de Secretaria del Patronato, con el visto bueno del Presidente, D. José María Aldecoa Sagastasoloa, en el cual se hacen constar las modificaciones de los Estatutos de la Fundación adoptados en los años 1997, 2003, 2006 y 2008 y se adjuntan como anexos los informes de las correspondientes modificaciones estatutarias, así como su efecto presupuestario y organizativo. El anexo cuarto contiene el texto refundido consecuencia de la totalidad de las modificaciones realizadas en los referidos años. Así mismo se incorpora certificado de denominación no coincidente emitido por la Encargada del Registro de Fundaciones del País Vasco de la nueva denominación adoptada.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espedienteak agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 36.3 eta 40. artikuluetan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4. artikuluan; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardunarloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Aipatutako titulua eta funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio espediente honi, eta bereziki ondoko hauek, estatutuen aldaketak onartu eta inskribatzeari dagokionez: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak.

Aipatu manuak eta oro har aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita,

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak, hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Mondragón Fundazioaren –lehen MCC Fundazioa– Estatutuen aldaketak eta aldaketa horien ondoriozko testu bategina onartzea, Antonio Román de la Cuesta Galdiz Arrasateko notarioak 2010eko urtarrilaren 28an baimendutako eskrituran adierazitako baldintzetan (63. protokolo-zenbakia).

Bigarrena.– Mondragón Fundazioaren –lehen MCC Fundazioa– Estatutuen aldaketak eta horien ondoriozko testu bategina inskribatzea agindu honen datarekin, eta Zorione Arregui Elcorobarrutiak Mondragón Fundazioaren izenean eta ordez –lehen MCC Fundazioa– 2010eko urtarrilaren 28an emandako eskritura publikoaren edukiarekin bat, Antonio Román de la Cuesta Gáldiz, Arrasateko notarioaren aurrean, 63 protokolo-zenbakia. Horren arabera, notario-titulua erantsita duen egiaztagiria publiko egiten da. Egiaztagiri hori, Arrasaten egin zuen Patronatuko

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco, que a su vista han elevado Propuesta de Resolución, atendiendo a los siguientes

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden la resolución de los expedientes de modificación estatutaria presentado sobre la base de los artículos 36.3 y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, y 4 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco; el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos; y el artículo 4.1 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– Al presente expediente se ha aportado el referido título así como los documentos y datos que se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, en relación con la aprobación e inscripción de las modificaciones estatutarias.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Aprobar las modificaciones de los Estatutos de la Fundación Mondragón (anteriormente, denominada Fundación MCC) y el texto refundido resultante de las mismas, en los términos contenidos en la escritura autorizada por el Notario de Mondragón, D. Antonio Román de la Cuesta Galdiz el 28 de enero de 2010, bajo su número de protocolo 63.

Segundo.– Ordenar la inscripción de dichas modificaciones estatutarias y del texto refundido resultante de la Fundación Mondragón (anteriormente, denominada Fundación MCC), con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con el contenido de la escritura pública otorgada el 28 de enero de 2010 por Dña. Zorione Arregui Elcorobarrutia, en nombre y representación de la Fundación Mondragón (anteriormente denominada Fundación MCC) ante el Notario de Mondragón, D. Antonio Román de la Cuesta Gáldiz, número 63 de su protocolo, que incorpora y ele-

idazkari Zorione Arregui Elcorobarrutiak, José María Aldecoa Sagastasoloa lehendakariaren oniritziarekin 2010eko urtarrilaren 20an, eta bertan Fundazioaren Estatutuei 1997an, 2003an, 2006an eta 2008an egindako aldaketak eta aldaketa horien ondoriozko testu bategina jasota daude. Horiek guztiek osatzen dituzte Mondragón Fundazioaren Estatutuak, eguneratuta.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 24a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

va a público el certificado expedido en Mondragón el 20 de enero de 2010, por Dña. Zorione Arregui Elcorobarrutia, en su calidad de Secretaria del Patronato, con el visto bueno del Presidente, D. José María Aldecoa Sagastasoloa, en el cual se hacen constar las modificaciones de los Estatutos de la Fundación adoptados en los años 1997, 2003, 2006 y 2008, así como el texto refundido resultante del conjunto de dichas modificaciones que supone la actualización completa de los Estatutos de la Fundación Mondragón (anteriormente denominada Fundación MCC).

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de marzo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.